

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



Tomas Armendariz • ARTZIKO ETA LONGIDAKO HARANETAKO APAIZA

«Erabaki honek pertsonak elkarren aurka jartzen ditu»

Gobernuaren erabakiak sortarazten duen tristora oso hurbiletik ikusten duen lagunetako bat Tomas Armendariz apaiza da. Duela 20 urte hasi zen herri hauetan meza ematen, eta orduetik hileta bat baino gehiago ospatu behar izan du. Ederki asko ezagutzen du herriarrek beren arbasoei dieten errespetua, eta ez ditu oso garbi txosten honen izango dituen ondorio guztiak.

Zein da zure iritzia Gobernuaren azken erabakiari buruz?

Guzti hau ez da esaten duten bezain sinplea, hildakoei gertatzen zaien guztiak eragina izango duelako bizidunengan. Hildakoen kaltetan egiten dena, bizidunen kalterako ere izango da. Gorpuak lekuz aldatzea erabaki dutenek ez dituzte hainbat faktore kontutan hartu: oroitzapen asko daude hildako hauekin lurperatuta, eta sufri-mendu handia ekarriko du horiek berriro gogora ekartzea. Erabakia ez dut

begi onez ikusten, pertsonak eta herriak elkarren aurka jartzen dituelako.

Zu herrietako jendearekin kontaktuan zaude, zer esaten dute haiek?

Herriarrek ideia bat daukate garbi: hildakoak bakean egon daitezten nahi dute. Oroitzapen asko etortzen zaizkie gogora. Horregatik, gorpuak lurpetik ateratzeak jende asko aztoratuko du.

Inolako kalte-ordainik egongo al da herriarrentzat?

Ez dut oso garbi. Eraikinak, soroak edo lurak dituztenei ordainduko diete, baina hildakoengatik... ez dakit. Gainera, gauza hauek ezin dira dirutan neurtu, sentimenduak tartean daudelako.

Gorpuak tokiz aldatzen dituztenean, inolako ospakizun berezirik egingo al duzue?

Oraindik ez dugu zehaztu, baina bai. Meza berezi bat egingo dugu, edo otoitzen bat, hildakoak errespetua merezi dutelako. Ezin ditugu horrela utzi.

Ohitura handia dago Saindu Guztien Egunean hilerrietara joateko.

Bai, baina guk, ahal dugun heinean beti bezala jarraituko dugu. Aurten ere loreak eraman dizkiegu hildakoei, eta otoitz egin dugu. Beti bezala.

Eta hemendik aurrera?

Hori ez dakit. Suposatzen dut hemendik aurrera herritar gehienak Nagoreko hilerri berrira joan beharko dutela, baina badira asko horra joateko inolako gogorik ez dutenak. Nagore proposamen «ofiziala» dela esan dezakegu, baina askok ez du aukera hori gustuko. Horiek beste herri batzuetara eraman beharko dituzte; senideak dauden herrietara, adibidez.

HERRIZ HERRI

ORBAITZ

170 gorpu daude hilerri horretan lurperatuta. Haietatik hamarrek soilik izango dute oroitarria Nagoren.

HILDAKOAK:

1841etik 1939ra: 160 pertsona

1940tik aurrera: Maria Aristu Iriarte; Antonio Lizarraga Jimenez; Nicolas Goñi Espinal; Basilia Imizkoz Iriarte; Benito Napal Ibarra; Jose Leandro Pabola Abaurrea; Esteban Eraso Otermin; Ignacio Garralde Barber; Basilio Palacios Arriola; Leocadia Olkatz Dommench.

ITOITZ

45 pertsona daude lurperatuta, eta hamabostek izango dute oroitarria Nagoreko hilerrian.

HILDAKOAK:

1881tik 1939ra: 30 pertsona

1940tik aurrera: Fermina San Miguel Intsausti; Gabino Gimenez Uriz; Joaquin Iribarren Lizarraga; Demetria Lizarraga Huarte; Jose Beltzunegi Itoitz; Asuncion Jimenez Uriz; Monico Igual Expósito; Florencia Lizarraga Huarte; Marcelino Larrañeta San Miguel; Juan Garralda Barber; Jose Larrañaga San Miguel; Alejandro Gorraiz Murillo; Magdalena Lizarraga Limenez; Francisca Larrañeta San Miguel; Francisco Lizarraga Huarte.

MUNIAIN

16 hildako daude, eta hauetako hiruk izango dute hilerria Nagoreko hilerrian.


HILDAKOAK:

1940a arte: 13 pertsona

1940tik aurrera: Eulalio Cabodevilla; Cabodevilla Lasaga (jaiotzean hildako umea); Estefania Idoate.

NAGORE

41 gorpu daude Nagoreko hilerri zaharrean. Guztiek izango dute oroitarria hilerri berrian.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Hildakoak: Melitón Josue Ardanaz; Jose Ibañez Aranz; Candelario Enekoitz Aristu; Cruz Martinez Muriello; Manuel Ibañez Anozibar; Francisca Villanueva Ardaiz; Felipa Olkatz Etxabarren; Felix Ilarraz Zuatzu; Doroteo Belzunegi Itoitz; Urbana Villanueva Errea; Jose Orbaizeta Zelai; Francisco Galech Indurain; Milagros Martinez Munilla; Carlos Juan Huarte Ilarraz; Peregrino Itoitz Huarte; Gregoria Aranaz Larrageta; Marcosa Nagore Ardaiz; Juan Miguel Murillo Villanueva; Jose Francisco Chorraut Egiluz; Joaquina Monaut Oloriz; Valero Iturain Redin; Juan Goñi Larunbe; Pedro Monaut Oloriz; Felipa Egiluz Isturitz; Aniceto Ibañez Villanueva; Leoncia Petra Irigoien Espinal; Victoria Orbaizeta Zelai; Fermin Erro Bizkai; Lorenza Iturain Redin; Maximo Huarte Eugi; Clara Apestegia Unziti; Martina Iturri Landa; Gabriel Urrizola Rekalde; Pedro Zazpe Goñi; Soledad Zazpe Iturri; Fermin Zabalza Apestegia; Ana Teresa Urrizola Erro; Jose Urrizola Rekalde; Eugenia Murillo Iturain; Crescencio Murillo Iturain; Florentina Murillo Iturain.

GORRIZ

11 pertsona daude lurperatuta, baina batek soilik izango du oroitarria Nagoreko hilerri berrian.

HILDAKOAK:

1883tik 1943ra: 10 pertsona

1944an: Juana Iglesias Mendioroz

ARTOZKI

130 gorpu daude Artozkiko hilerrian. 40 hildakok izango dute oroitarria Nagoren.

HILDAKOAK:

1902tik 1939ra: 90 pertsona

1940tik aurrera: Miguel Poyo Andraiz; Jesus Urrizola Isturiz; Isidro Andraiz Itoitz; haur bat; Raimundo Meleiro Vicente; Toribio Redin Jimenez; Fermin Vicente Andraiz Itoitz; Francisco Urrizelki; Eugenio Ezpeleta Elizari; Felicitas Iturri Garcia; Domingo Redin Urrizola; Conrado Iturri Balras; Miguel Zazpe Cabodevilla; Tellesfora Reta Anesto; Cayetano Iribarren Urrizalki; Constantino Ducay; Marcelina Iturri; Jose Maria Legasa Esparza; Clemente Zazpe Ezpeleta; Teodoro Iturralde Elizari; Micaela Elizari Jimenez; Fermin Oteiza; Victorio Legasa Esparza; Juan Simon Monante Irigoien; Antonio Ducay Elizari; Ursula Urrizola Arla; Luis Ducay Iturri; Maria Urrizalki; Vicente Begiristain Melero; haur bat; Francisca Arbunies Ripodas; Castora Cabodevilla Leoz; Santos Ardaiz Ezpeleta; Calixto Legasa Andraiz; Barbara Gortari Erro; Maria Begiristain Meleiro; Epifanio Legasa Esparza; Manuel Begiristain Meleiro; Francisco Urrizalki Begiristain; Casimira Melero Ripodas.